

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1427

37/2021 EBAZPENA, otsailaren 12koa, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Ana Guisasola Ansola andrea Ama-hurren Unitateko gainbegirale izendatu den, izendapen askez, Osakidetzako Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuan.

386/2020 Ebazpenaren bidez, Osakidetzako Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuan Ama-hurren Unitateko Gainbegirale lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Ana Guisasola Ansola andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea, izendapen aske bidez, Ama-hurren Unitateko gainbegirale Osakidetzako Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuan.

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ana Guisasola Ansola andrea izendatzea Ama-hurren Unitateko gainbegirale Osakidetzako Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2021eko otsailaren 15etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurraldetasun-baldintza berberetan. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuari.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Arrasate, 2021eko otsailaren 12a.

Debagoieneko ESiko zuzendari gerentea,
LUISA M.^a DIEZ AZURMENDI.